


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %20,2 gutxitu zen 2013ko lehen hiruhilekoan

Etxegintza %23,3 gutxitu zen eta Obra Zibila %13,7

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2013ko lehen hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %20,2 nominala murriztu zen Euskal AEko eraikuntza jardura.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2013ko lehen hiruhilekoan eraikuntza sektorea %6,0 murriztu zen 2012ko laugarrenaren aldean.



2013ko lehen hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari -urte arteko %23,3ko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari, -%13,7koa- zor izan zitzaien.

Hiruhilekoen artean, 2013ko lehen hiruhileko sektoreko jardura aurrekoarekin alderatuz gero, Etxegintza %7,4 jaitsi zen eta Obra Zibila %3,3.

Eraikuntzako enplegua %3,1 jaitsi zen 2012ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2013ko 1. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak.

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonizatua	
	13 1.hir / 12 1.hir	At / At-1 (1)	13 1.hir / 12 4.hir	12 4.hir / 12 3.hir
Produkzioaren indizea	-20,2	-20,2	-6,0	-7,2
Eraikuntza	-23,3	-23,3	-7,4	-8,8
Obra zibila	-13,7	-13,7	-3,3	-4,1
Landunen indizeak	-	-	-3,1	-4,9

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKBI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); datu-bankua